



KOSTU EGITURA

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.

Bi negozio-eredu mota nagusi bereizten dira, beren kostu-egitura kontuan hartuta:

Kostuak bultzatutako negozio-eredua

Kostuak minimizatzen dira, hori egiteko aukera dagoen enpresaren sail guztietan. Eta lortu nahi dutena da kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabilita, prozesuak automatizatuta eta zerbitzuak masiboki azpi-kontratatuta.

Balioan oinarritutako negozio-ereduak

Enpresen interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dute.

Gure ekoizle-taldearen irabazi iturriak, beste enpresekiko publizitate-harremanetan oinarrituko da. Esate baterako, Eroski edo Kaiku estiloko enprekin harremanetan jarriko gara haien produktuak gure produkzioetan sartzeko eta haien publizitatea egiteko.

Horrez gain, gure bezeroen donazio edo ekarpenekin oinarrituta egongo da. Donazio hauek, haien irabazi asmorik gabe izango dira eta edozein motatako ekarpenak izan daitezke, ekonomikoak zein materialak.